

ANTONIO OKENDO JAUNAREN BIZITZA ETA AZAÑAK

COMPOSICION PREMIADA CON EL RAMO DE LAUREL DE PLATA EN LOS
JUEGOS FLORALES DE SAN SEBASTIAN.

Mundua egin ozkerotzikan
Ez da izan ichas-gizonik,
Okendon gisa eun gudetan
Inork garaitu gaberik.

Donostiako uri ederrak
¡Zenbat ume eman ez ditu,
Ala ichasoz nola idorrez
Dutenak mundua arritu!
Oen arteko baten omenak ¹
Inõndikan albanitu,
Euskal-izkuntza paregabean
Nai nituzke otseztitu. ²

Oriek jakin erazitzeko
Zertarañoakoak diran,
Nere etorkia ³ bañan obea
Duenak bear ditu esan:
Itz neurtutzalle gañ gañekoak
Bereziturik aukeran,
Nere ustean, ez ditu esango
Ari dagokion eran.

Bada aiñ aundiak izandu ziran
Bere bizitza ta azañak,
Ezik itz bitan dio Henao
Kondairagille zuzenak:
«Oso pizkorrak izandu arren
»Len da gero ichas-gizonak
»Aiñ azkar eta jakintsurikan
»Etzuela izan Españañak.»

Izena zuen Antonio ta
Okendo berriz lonbrea,
Aitaren gisa gaztetandikan
Ichas-lanetan trebea;
Amasei urte zitueneko
Juan zan itsastar ernea,
Kapolés-eko ontzidietan
Etsaia garaitutzea.

Arrai aundiak chikia iresten
Duen gisa ber berean,
Denbora aetan, indar aundia
Zutenak nagusi ziran:

Oñazpituak gizarandek⁴
Begirun izan ordean⁵
Arrazoa maiz arkitutzen zan
Indar utsaren mendean.

Orregatikan itsasaldeak
Nasten zituzten ontziak,
Itsaslapurrez ondo ornituak
Ziran ikaragarriak.
Espartatarren gisa alkarri
Esanaz «ea mutillak
»Danak garbitu bear dizkigu
»Ill edo bizi, etsaiañak.»

Ingeles arro baten mendean
Zebiltzan gure uretan,
Ikarasaeraz ten ugarotarrak,⁶
Eta beti lapurretan:
Buruzari asko izanagatik
Azkarrak ichas-gudetan,
Okendo, aren kontra juateko
Autatu zan guzietan.

Milla seireun eta laugarren
Urteko Agorra zala,
Dobladilla ta Delfin arturik
Irten zan etsaien billa:
Ingelesa ere jazar oetan
izanik gizon abilla,
Nai zuena zan aren etsaia
Azkarra izan zedilla.

Ikusi bexiñ laster aurrez-aur
Ekin zioten alkarri,
Sartu ere eun gizon ontzira
Ingelesak Okendori:
Merezi zuten bezela onek
Egiñaz on gie torri,
Lendabiziko pealditik
Odol asko zan isuri.

(1) Las glorias.—(2) Cantar con melodia.—(3) Numen.—(4) Derecho de genes.—(5) En vez de respetarlos.—(6) Los navegantes.

Unez un ¹ berriz jende berria
Botatzen zion ontzira,
Lengoen gisa, are aisago,
Porrokatuta urera:
Mutill bikañak galdu ta gero
Porchan Okendon mendera,
Bere etsaiakin chit garailari
Sartu zan Kaskaes-era. ²

Odeiaz goiti alchatu zuten
Garaioen ospatsu oek; ³
Eta etzituen ogeita zazpi
Urte galai pixkor onek:
Bizkaiaiko ontzidien buru
Izenda zuen Erregek;
Kantauriako agintza dana
Etzuen laster ark bestek.

Jipoi ederrak eman zizkion
Olandako armadari,
Kalteak egin zituelako
Gure uretan ugari:
beste azaña eta serbitzo
Pranko eginda askori,
Izendatu zan ichasotako
Ontzi danen agintari.

Milla goien au irichi eta
Andik denbora guchira,
Mairu samalda izugarriak
Ertsitu ⁴, zuten Marmora:
Agudo juañ zan Okendo ernea
Irriskutik libratzera,
Baita desegin eta usatu
Bizi beuden echera.

Baña Okendok izan zituen
Jazarrerik gogorrenak,
Kondairak dio, izan zirala,
Orain esango diranak:
Batxuek ziran Brasil-go uretan,
Ipar aldean besteak,
Jendez ta ontziz askoz geiago
Zirala beti etsaiak.

Santu-guziak ta Pernanbuko
Deritzazkioten plazak,
Desegindurik, lurperatuta,
Zeukazkiten Olandesak:

Gaztiga zuten Espaiñara
Nola zebiltzan an gauzak,
Okendo laster bideratu zan,
Arturik rieurri zorrotzak.

Brasil aurrean ontzidi biak
Ikusteratu ziraden:
Bi kapitanak ⁵ laster alkarri
Portizki ekin zioten:
Gurutzatuak bezela trabes
buruz buru ⁶ burrukatzen,
Zortzi orduan, seta aundiaz,
Odol asko isur zuten.

Hanspater jaunak, ikusirikan
Ausia oso galdua,
Lotsaz beterik, botatu zuen
Urera bere burua:
Irabazirik ichas-jazarra
Gelditu zanean sua,
Etzuen inork iges egingo
Ezpzazan aiñ urbill gaua.

Modu orietan ichaso aek
Menderatuaz gallera,
Garaisen ⁷ asko ekar zituen
Berekin Espaiñara:
Oetatikan erregalatu
Zituen Aranzazura
Bi arroako bala ichachi bat ⁸
Eta amabi bandera.

Oroikarriak izandu ziran
Iparraldeko jazarrak,
Ta batezere, irozotua ⁹
Bakarrik Okendo azkarrak:
Eun ta amalau ontzi zituen
Olandesak chit gogorrek,
Okendok berriz, nolapaikoak,
Ogei eta bat bakarrak.

Urruñ aundiaz eraso zion
Olandesak Okendori,
Begiraturik bien arteko
Indartsa desberdiñari:
Biek alkarri ondoratuta
Ontzi lodiak ugari,
Ertsi zioten alde guztitik
Gure umant erneari.

(1) Por momentos.—(2) Puerto en la desembocadura del Tajo.—(3) Estos celebrados triunfos.—(4) Cercar ó sitiar.—(5) De origen bascongado.—(6) Mano á mano.—(7) Trofeos.—(8) Una bala incrustada en la Capitana de Oquendo.—(9) Sostenido.

Ondorazteko onen ontzia
Edo ertzez-ertz jotzeko ¹
Egin zituen zenbat alegin
Aditu ez bezelako:
Kekez arturik etsimendua
Etzutela garaituko,
Mardik-en sartu zan, geldituaz,
Gudatokia arendako.

Gortean estu estu arturik
Tromp olandes jenerala,
Sola etzuen garaitu etsaia,
Eranzun zuen onela:
«Kapitan onzi *Españatarra,*
Okendo buru zuela,
Egi garbiaz mintzatutzeko
Garaitzegarria zala.»

Lotsa aundiaz, oso nastua,
Etzekiela zer esan,
Burua makur makur zuela
Aur bat bezela mintza zan.
¿Ote lezake esan etsaiak
Geiago itz guchigotan
Izan dan umant aundienaren
Onra eta alabantzán?

Ainbeste neke, ibillera ta
Jazarretako erasoak,
Ekar-erazi zizkion noizpait
Guztiz ondore gaiztoak:
Bere indarrak jausbetiturik²,
Makaldua oso beroak,³
Laster Coruñan eman zioten
Etsimena sendakiñak ⁴

Jaungoikoari kontu eman zion
Pesta-berri egunean,
Sutunpariak⁵ ari zirala.
Prozesio bitartean;
Bere burua miñez nasia,
Oetik alcha naiean,
Burrukatzeko, urbill etsaiak
Ziradelako usteán.

¡O Okendo jaun, Kantauriako
Illezkor umant aundia!
Berrogeita bi urtez serbitu
Zenduen jaioterria,

Sekula iñork desegin gabe
Zure mendeko ontzidía!
Zeñen ederki eman zizuten
¡Zende aiñ egokia!

Zure indarrak eta erruak ⁶
Etzuten izan bildurrik,
Azkoz geiago aurkeztu arren
Etsaiak ondo orniturik:
Zure ontzia ta estandartea⁷
Onorez oso beterik,
Mundu guzia egon zizkitzun
Begira, chit arriturik.

Izan ziñuzen jazar danetan
Zure zeña-agiriak⁸
Ziran kuraia, ezagera ta
Biotzeko funts ⁹ aundiak:
Zure ametsak pake denboran
Liburu ta ikas naiak,
Eraskusteko ichas- mutilai
Gubernatutzen ontziak.

Biotz garbi bat izan zenduen
Sekula beztu gabea,
Guchik bezela izan ziñon
Españari amoreá:
Erregek zeuzkan perilla aundiak
Ziradeneko gordea,
Zekielako gertoi estuan
Iñor etzala obea.

Iñork etzizun ezagutu, ez,
Aundinai ta kutizirik,
Zure ondoan etzenduen nai
Ikusi losincharirik:
Joia ¹⁰ berriak Españientzat
Irabazkidatu¹¹ nairik,
Etzen izandu eun gudetán
Beñ garaitu zinduenik

Artugisko ¹² ol eder batean
Otallutu¹³ bear ziran,
Gipuzkoatar onen azañak
Irago ziraden eran,
Bere oroitza aztu etzediñ
Gerozko gizajendetan,
Ta batezere ichasorako
Jaiera duten aetan.

(1) Para aborlarla.—(2) Desfallecidos.—(3) La calentura.—(4) Los médicos.
(5) Cañonazos.—(6) Brios.—(7) Voz bascongada.—(8) Pruebas evidentes.—(9)
Templo de alma.—(10) Voz bascongada.—(11) Conquistar.—(12) De diamantes.
—(13) Esculpir.

Baña utsaldi au, nere ustean
 Beteko dute euskaldunak,
 Dirala aurrena Donostiako
 Seme noble ta leialak:
 Zeren ez dute mugarik izan
 Iñoiz oen emanaiak
 Onratu bear diradenean
 Alako ume argiak.

Aleha bezate bada lenbailen
 Oroikarri¹ bat ederra.
 Ondorengoak jakin dezaten
 Nor zan Okendo illezkorra;
 Guzi guziok nai degu ikusi
 An umant Kantauritarra,
 Usbetatutzen² duelagalanki
 Irozpe³ baten gallurra

EUSKALDUN BAT.

ABENDUA-REN 7.^a 1688 GARREN URTEAN

*Izugarrizko ekaitza edo tempestadea, eta chimista baten erorke-
 ta Donostiako gaztelurá, zeñek lertu ondorean, eragin zituan
 guztiko kalte eta doakabe aundiyak.*

COMPOSICIÓN PREMIADA CON EL PENSAMIENTO DE PLATA Y ORO EN
 LOS JUEGOS FLORALES DE SAN SEBASTIÁN

Goizetikan zan ichura charra
 Artzen denbora asiya,
 Eguardirako ez tali zuen
 Beltzez zeruben azpiya;
 Arratsaldian, illundurikan
 Ordubiyetako iya ,
 Andik aurrera arrats triste bat
 Bezela zegon erriya.

Indar aundiyen asirik gero
 Itsasoaren mugira,
 Bagak muralen altuenetik
 Saltatzen zuten errira :
 Ura ikusten zuen tristeak
 Chimizt dizdiren argira,
 Ikaratuta gelditutzen zan
 Beste aldera begira.

Antiguá-ra ta Hernani-ra.
 Zeuden pasabide biyak
 Izandu ziran momentu artan
 Itsasoak estaliyak;
 Egonagatik lenaz barrerak
 Ezkudatzeko jarriyak,
 Purrukatuta an ere egin
 Zituben kalte aundiyak.

Labak aldera turmoi soñua
 Auinbezteraño asi zan,
 Zeñen erriyan instante artan
 Etsi gabeko guchi zan:
 Chimiztak zartzen ziraden plazan
 Kalian eta elizan
 Bertan ziranak Jaungoikoari
 Laguntza eske zebiltzan.

Andikan zarri gaztelura zan
 Bezte chimizta bat sartu,
 Ala bearda şuautza ⁴ zegon
 Zertagiyan ⁵ zan suertatu;
 Zazpi eun da geiyago ziran
 Kintalak bertan zartatu ⁶
 Zeñen erriyak golpez bezela
 Aguro zuen su artu.

Elizan gorde ziranak ere
 Eztuten diña denbora,
 An bertan galdu baña lenago
 Ateratzeko kanpora;
 Baña alako trantze eztuan
 ¡Nora joango ziran! ¡¡Nora!!
 Uzkeribat zan laguntza billa
 Abiyatzia iñora.

(4) Monumento. — (2) Ocupando. — (3) Pedestal. — (4) Pólvora. — (5) Almace-
 na. — (6) Estallar.